ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko maiatzaren 29a, asteazkena • 62 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

Jendaurrean jartzea eta ordaintzeko aldia. Udal igerilekuak – 2019

Udal igerilekuaren zerbitzua ordaindu behar dutenen 2019ko errolda egin da, eta jendaurrean jartzen da, interesdunek egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten, hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Agiriak interesdunen eskura daude udal idazkaritzan, jendaurreko ordutegian.

I. Ordaintzeko epea

A) Borondatezko epea: 2019ko ekainaren 1etik uztailaren 31ra.

b) Premiamendu epea: 2019ko abuztuaren 1etik aurrera, administrazio premiamenduko betearazte bidea hasiz eta dagokion errekarguarekin (Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 28. artikulua).

II. Ordaintzeko tokia eta modua

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa helbideratuta ez dutenek udal bulegoetan ordaindu ahal izango dute, kreditu txartelarekin, borondatezko epean, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara. Era berean, ordainketa dirutan egin daiteke, udalak Kutxabank, Laboral Kutxa eta Caixan dituen kontuetakoren batean.

III. Gomendioak

Nola banku helbideratzeetako altak edo aldaketak hala hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak Zigoitiko Udalean izapidetu beharko dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Ondategi, 2019ko maiatzaren 16a

Jarduneko alkatea
NEREA TXURRUKA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.05.29 05:30:13 Z